



Rosa María Arano | Txingudi Ikastola (Irún) | 2. Saria Lehen Hezkuntza Neo Sistema (Jaizu)
3. Saria Lehen Hezkuntza Neo Sistema (Txingu)
Argazkiak: Sara Santos

“Ikasleentzat interesgarriena programa desberdinak erabiltzea izan da”

Rosa María Arano Lehen Hezkuntzako Neo Sisteman bi sari (bigarren eta hirugarrena) lortu dituzten Irungo Txingudi Ikastolako bi taldeen arduraduna da. Bere ustez, Kosmodisean parte hartu duten ikastetxe honetako 25 ikasleek “oso ongi” baloratu dute esperientzia.

- Zure iritziz, zer interesatu zaie gehien ekimen horretako ikasleei?
- *Programa desberdinak.*
- Zein iritzi izan dute neska-mutilek lortutako emaitzei buruz?
- *Oso ona.*

- Zure ustez, ikasleentzako zein balio positibo eskura daitezke Kosmodisean parte hartuz?
- *Talde-lanean aritzeko gaitasuna eta IKTak erabiltzeko trebetasuna.*
- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena? Zein alderdi hobetu beharko lirateke, zure ustez?
- *Aurten, ikasle txikiagoekin parte hartu dugu eta zaila egiten da hainbeste programa hain ikasle txikiekin erabiltzea.*
- Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duzu?
- *Ez dakigu.*

